BELAUNEKO PROTESI OSOA ALDATZEKO BAIMEN INFORMATUA
CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA RECAMBIO DE PRÓTESIS TOTAL DE RODILLA

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA: ..... Data: .....

B. INFORMAZIOA:

Ebakuntza honen bidez, protesia ateratzen da, eta zementua, egongo balitz, eta posible bada, beste protesi bat jartzen da, edo bestela, aldi baterako zabaltzaile bat (protesi berria jarri bitartean espazioa gordetzeko gailua).

Ebakuntzan anestesia behar da, eta Anestesia Zerbitzuak baloratuko du.

Mina arintzen eta funtzioa hobetzen saiatzea da helburua. Halaber, infekziorik baldin badago berau desagerraraztea ere badu helburu.

Artikulazioa aldatzen bada, inplante handiago bat behar izaten da, baita hezur-injertoak ere. Infekzioa dagoenean, lehenik, garbitzeko eta zabaltzaile bat jartzeko kirurgia bat egiten da, zementua eta antibiotikoa erabiliz; bigarren kirurgian, berriz, jadanik infekziorik ez dagoenean, protesi berria jartzen da.

Ebakuntza kirurgiko guztietan daude konplikazio inplizituak, ebakuntza-teknikak berak nahiz paziente bakoitzaren bizi-egoerak (diabetesa, kardiopatia, hipertentsioa, adinekoa izatea, anemia, obesitatea...) eragindakoak. Horietako batzuk larriak izan daitezke, eta horren ondorioz baliteke tratamendu osagarriak egin behar izatea (medikoak zein kirurgikoak). Hiltzeko arriskua ere badago, txiki-txikia bada ere.

Beharrezkoa da medikazioa hartzea konplikazio nagusietako biren eragina murrizteko: zainetan tronbosia agertzea edo protesia infektatzea.

Ebakuntzaren ondoren, mina izango duzu gunean; denbora batez luza daiteke, edo etengabea bihurtu. Makilak erabili beharko dituzu denbora batez, eta egin beharreko errehabilitazioaren eta saihestu beharreko mugimenduen berri jakinaraziko zaizu.

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE: ..... Fecha: .....

B. INFORMACIÓN:

La intervención consiste en la extracción de la prótesis y del cemento si lo hubiese, y si es posible colocar una nueva prótesis o en su defecto un espaciador temporal (dispositivo para preservar el espacio hasta que se coloque la nueva prótesis).

La intervención precisa de anestesia, que será valorada por el Servicio de Anestesia.

El objetivo es intentar aliviar el dolor y mejorar la función. También, tiene como propósito intentar eliminar la infección en caso de que exista.

Si se recambia la articulación suele necesitarse un implante más grande e incluso el uso de injertos óseos. En caso de infección, se suele realizar primero una cirugía de limpieza y colocación de un espaciador con cemento y antibiótico, y en una segunda cirugía cuando ya no hay infección, se implanta la nueva prótesis.

Toda intervención quirúrgica, tanto por la propia técnica operatoria, como por la situación vital de cada paciente (diabetes, cardiopatía, hipertensión, edad avanzada, anemia, obesidad,...) lleva implícitas una serie de complicaciones comunes y potencialmente serias que podrían requerir tratamientos complementarios, tanto médicos como quirúrgicos, así como un mínimo porcentaje de mortalidad.

Es necesaria la administración de medicación para reducir la incidencia de dos de las complicaciones principales: aparición de trombosis en las venas o infección de la prótesis.

Después de la intervención, presentará molestias en la zona que pueden prolongarse durante algún tiempo o incluso, hacerse continuas. Deberá usar bastones durante un tiempo y recibirá instrucciones sobre la rehabilitación que debe realizar y los movimientos que debe evitar.

C.- ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

- Zainak buxatzearen ondorioz tronboak sortzea eta erasandako gorputz-adarra handitzea; oso kasu bakanetan, okertu eta toraxeko mina eta arnasteko zailtasuna sor ditzake, eta horrek heriotza ere eragin dezake.
- Inplantea infektatzea, baita urte batzuk geroago ere; ebakuntza gehiago egin beharra ekarriko luke (artikulazioa garbitzea, baita osagaiak ateratzea ere), tratamendu antibiotikok huts egiten badu.
- Azaleko konplikazioak: zauriaren dehiszentzia (bat-batean irekitzea), zauriaren ertzetako nekrosia (ehuna hiltzea), orbain hipertrofikoa (ohikoa baino lodiagoa).
- Ebakuntzan edo geroago izterrezurra edo tibia haustea.
- Alboko hodiak lesionatzea; gorputz-adarra anputatzea eragin dezake, lesioa konponezina bada.
- Alboko nerbioak lesionatzea; sentikortasuna murriztea edo paralisia eragin ditzake. Lesio hori behin-behinekoa edo behin betikoa izan daiteke.
- Protesia luxatzea (protesia bere artikulaziotik ateratzea); horrek ebakuntza-gelan erredukzio bat egitea ekar dezake, baita protesia aldatzea ere.
- Protesia lasaitzea edo osagaiak gastatzea; horren ondorioz, ordezkatu egin beharko litzateke eta emaitza hasierako inplantearena baino txarragoa izango litzateke.
- Artikulazioen mugikortasuna murriztea, protesiaren inguruan kaltzifikazioak edo orbain itsaskorrak agertzeak eraginda.
- Halaber, paralisia, herren egitea eta gorputz-adarra laburtzea/luzatzea ere gerta daitezke.
- Ezohikoagoa izan arren, bihotz-biriketako konplikazioak, konplikazio gastrointestinalak, urologikoak eta operazio osteko nahasmen mentala ere ager daitezke, batez ere gaixo adinduen kasuan.
- Agian odol-transfusioa edo hemoderibatuen transfusioa egin beharko da; horrekin lotutako arazoren bat baduzu, zure medikuari jakinarazi behar diozu. Arriskuen eta konplikazioen berri anestesiologoak emango dizu.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

C.- RIESGOS Y COMPLICACIONES:

- Obstrucción venosa con formación de trombos e hinchazón de la extremidad afecta que, en raras ocasiones, se complica con dolor torácico y dificultad respiratoria y puede conducir incluso a la muerte.

- Infección del implante, incluso años después, que obligaría a nuevas intervenciones (limpiezas articulares o incluso extracción de los componentes) si el tratamiento antibiótico fracasa.
- Complicaciones cutáneas: dehiscencia (apertura espontánea) de la herida, necrosis (muerte de tejidos) de los bordes de la herida, cicatriz hipertrófica (más gruesa de lo normal).
- Fracturas del fémur o de la tibia durante la intervención o más tardíamente.
- Lesión de los vasos contiguos, que puede llevar a la amputación de la extremidad si la lesión es irreparable.
- Lesión de los nervios contiguos, puede producir una disminución de la sensibilidad o una parálisis. Dicha lesión puede ser temporal o definitiva.
- Luxación (salida de la articulación) de la prótesis que implicaría su reducción en quirófano o incluso el cambio de la prótesis.
- Aflojamiento de la prótesis o desgaste de los componentes que implicaría la necesidad de recambio, con peores resultados que la implantación inicial.
- Limitación de la movilidad articular por aparición de calcificaciones o cicatrices adherentes alrededor de la prótesis.
- Pueden presentarse asimismo parálisis, cojera y acortamiento/alargamiento del miembro.
- Menos frecuente pueden presentarse complicaciones cardiopulmonares, gastrointestinales, urológicas y confusión mental postoperatoria, sobre todo en enfermos de edad avanzada.
- Puede ser necesaria la transfusión de sangre o hemoderivados, debe informar a su médico si tiene algún problema al respecto. De sus riesgos y complicaciones le informará el anestesiólogo.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

D.- AVISENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E.- ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F.- BESTELAKO AUKERAK:

Tratamendu analgesikoa eta antiinflamatorioa egin dezakezu, makila erabili, atseden erlatiboa hartu eta pisua galdu, beharrezkoa balitz. Tratamendu horrek sintomak partzialki hobetzen ditu, baina ez du artikulazioaren higadura eteten. Infekzioa dagoenean, ebakuntza ezinbestekoa da, paziente oso zehatzen kasuan izan ezik.

F.- ALTERNATIVAS:

Puede seguir tratamiento analgésico y antiinflamatorio, usar bastón, hacer reposo relativo y perder peso, si fuera necesario. Dicho tratamiento mejora parcialmente los síntomas sin detener el desgaste progresivo de la articulación. En caso de infección, la cirugía es inevitable salvo en pacientes muy concretos.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritza judizialei eta aseguru-erakundeei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El/la Paciente

Pazientearen izen-abizenak
Nombre, dos apellidos
.....

Sinadura eta data
Firma y fecha .....

Medikua/El/La Médico/a

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.
Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a
.....

Sinadura eta data
Firma y fecha .....

Legezko Ordezkaria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante legal: en caso de incapacidad del/de la paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna
Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del/de la representante legal.
.....

Sinadura eta data
Firma y fecha .....

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del/de la paciente o representante legal
Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut. Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento. .....
Sinadura eta data Firma y fecha